



2014-2015 IKASTURTEAN ITUNPEKO IKASTETXEETAN IKASLEAK ONARTZEKO ARAUAK

1.- Arautegia.

Ikasleak onartzeko, xedapen hauek izango dira kontuan:

- 35/2008 Dekretua, martxoaren 4koa.
- Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren 2013ko abenduaren 12ko Agindua, 2014-2015 ikasturtean Haur, Lehen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxeetan matrikulatzeko prozedura eta egutegia arautzen dituena.

2.- Aplikazio-eremua.

Ikasleak onartzeko prozesu honetan, eskaera egin beharko dute 2 urteko gela batean onartuak izan nahi duten ikasle guztiek, baita Haur Hezkuntzako bigarren zikloko, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako edozein kurtsotan ikastetxera lehen aldiz sartu nahi dutenek ere.

Bermatu egingo da etapa eta maila desberdinetan ikasleak ikastetxe berean ikasten jarraitu ahal izango dutela eta, ondorioz, ez da onartzeko eskaerarik egin beharko, 2 urteko gela batera sartzeko izan ezik. Horretarako, ikasleak maila eta etapa batetik bestera pasatu ahal izateko, ikastetxeek eskaintza planifikatuko dute, itunpeko gelen kopurua kontuan izanik.

Ikastetxeko ikasleren batek 2014-2015 ikasturtean hizkuntza-eredua aldatu nahi badu, ikasleak onartzeko epean eskatu beharko du ikastetxean bertan aldatzeko, eta ikastetxetik kanpoko ikasleak bete beharreko baldintza berak bete beharko ditu.

3.- Hezkuntzako eskaintza.

Zehazteko ikastetxe bakoitzak zenbat talde eta ikasle matrikulatu ahal dituen, gehienez ere, maila eta hizkuntza-eredu bakoitzean, kontuan hartuko dira ikasketak eta eskola-plazak onartzeko aginduak eta hezkuntza-itunak. Ikastetxe pribatuetan, 2 urteko ikasleak 3 urteko geletan sartzea bermatzeko, ikasleak onartzeko prozesu honetan parte hartu beharko dute; horrez gain, matrikulatutako ikasleak, guztira, ez dira izango ikastetxe horretarako agindu honetan arautzen den prozesuaren hasieran 3 urteko geletarako onartu daitezkeen plazak baino gehiago.

Ikastetxeek eskabide guztiak onartu beharko dituzte. Eskabidean lehen aukera moduan azaltzen bada ikastetxeak eskaintzen ez duen hizkuntza-eredu bat, familiei jakinaraziko zaie aukeratutako eredua ez dagoela ikastetxean, lurralde-ordezkaritzari ere jakinaraziko zaio hark azter dezan eredua eta maila horretako talderik eraterik dagoen ikastetxean bertan ala zonaldean; dena den, horretarako, nahikoa eskabide egon behar dira eta plangintzak horretarako bidea eman behar du. Edonola ere, eskatzaileak ikastetxeko gainerako ereduak onartzeko ikasleak onartzeko prozesuan parte hartuko du, prozesu horretan parte hartzeko eskatu badu.



Era berean, lurralde-ordezkaritzek izango dute ikastetxeak ematen ez dituen ikasketa-ereduen eskabide guztiak kudeatzeko ardura. Horretarako, halako eskabideak erregistratzen dituzten ikastetxeek eskabide bakoitzari dagokion puntuazio-baremoa idatzita utziko dute aplikazio informatikoan eta eskabideari erantzen zaion dokumentazioa bidaliko dute Lurralde Ordezkaritzara.

4.- Ikasleak onartzea bermatzeko batzordeak.

Ikastetxe publikoen eta itunpeko ikastetxeen eragin-eremuak eta mugakideak zehazteko asmoz, ikasleak onartzea bermatzeko egungo batzordeek jarraitu egingo dute beren egitekoak betetzen irailaren 12a arte; izan ere, orduan berrituko dira, eta ikastetxeei sasoiz jakinaraziko zaie, aginduak ezarritako epeetan barematu ahal izan ditzaten eskaerak.

5.-Gehienezko ratioak.

Hona 2014-2015 ikasturterako ezarritako gehienezko ratioak:

a) adin bereko ikasle-taldeak:

Haur Hezkuntza:.....(2 urte) 18 ikasle

Haur Hezkuntza:.....(3-5 urte) 25 ikasle

Lehen Hezkuntza:..... 25 ikasle

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza: 30 ikasle

Arestian adierazitakoak baino ikasle-ratio handiagoak onartuko dira, ikastetxean matrikulatuta dauden ikasleek errepikatzeke aukera izan dezaten.

6.- Matrikulak egiteko prozedura.

6.1.- Argibideak

Ikastetxeek alderdi hauei buruzko informazioa emango diete eskatzaileei:

- Aurkeztu behar dituzten egiaztagiria, baremoaren atal desberdinak balora diezazkieten.
- Ikaslearen ibilbidea, ikastetxe horretan lehen aldiz matrikulatzen denetik unibertsitateaz kanpoko araututako irakaskuntzaren etapak bukatu arte.
- Informazio hori idatziz emango zaie eskatzen duten guztiei.

Era berean, informazio hau jarri beharko da iragarki-taulan:

- a) Ikasleak ikastetxe publiko eta pribatu itunduetan onartzeko araudia.
- b) Ikastetxearen eragin-eremua eta eremu horren mugak.
- c) Eskabideak egiteko epea.
- d) Prozesuaren egutegia, onartu eta kanpoan utzitako ikasleen zerrendak argitaratzeko eguna eta erreklamazioak egiteko epeak.

- e) Eskola Kontseiluak edo Ordezkaritza Organo Gorenak emandako puntuak zehazteko irizpideak: ikastetxe bakoitzak dokumentu bat sartu beharko du aplikazio informatikoan urtarrilaren 31 baino lehen. Dokumentu horretan zehaztuko ditu puntuazioa emateko irizpideak. Hala, eskabidea bide telematikotik egiten dutenek informazio hori eduki ahal izango dute eskura. Dokumentu horren beraren kopia erakutsiko da zentroko iragarki-taulan.
- f) Eskabideak aurkezteko epean ikastetxeko idazkaritzak jendeari erantzuteko duen egutegia eta ordutegia.

6.2.-Ikasleak onartzeko epea eta aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Eskabideak onartzeko epea 2014ko otsailaren 3tik 14ra arte (biak barne) izango da.

Eskatera guztiek ondorengo dokumentazioa izan beharko dute, derrigorrean:

- Ikaslearen eta haren gurasoen edo tutorearen familia-liburuko orrien fotokopiak.
- Udalak emandako erroldatze-egiaztagiria.
- Ikaslearen aitaren, amaren edo legezko tutorearen NANaren (AITrena atzeritarren kasuan) kopia.
- Hezkuntza-premia bereziei buruzko galdetegia, beharrezko denean.

6.3.- Eskabideak izapidetzea

Eskabide bakarra egin, eta ikastetxe batean baino ezingo da aurkeztu. Interesdunak berak bete ahal izango du, bide hauetakoren bat erabiliz:

- On line, otsailaren 13 arte, (egun hori barne) Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak horretarako prestatzen duen aplikazio informatikoaren bidez. Gero, eskabideak izapidetzen dituenean, datuak egiaztatuko ditu ikastetxeak, eta, zuzendu behar baditu, zuzendu egingo ditu.
- Lehen aukera moduan hautatutako idazkaritzan. Bertan sartuko dira aplikazio informatikoan eskatzaileek eskabidean jarritako datuak.

a) On-line eskabidea

- On-line eskabidea otsailaren 13ko 24:00ak arte egin ahal izango da, orduan utziko baitio aplikazioak aktibo egoteari.

- Eskabidearekin batera, eskatutako dokumentuak aurkeztuko dira, eskaneatuta.

- Eskabidea bete ondoren, sartutako datuak eta dokumentuak berrestea edo konfirmatzea eskatuko du programak. Ondoren, alta emango dio eskabideari, eta frogagiri bat emango du, eskabidean jasotako datu guztiekin.

- Behin eskabideari alta emanda, eta hautatutako zentroak eskabidea hartu arte, eskatzaileek aukera izango dute grabatutako datuak aldatu edo zuzentzeko, aplikazio berberaren bitartez. Gero ere eskatu ahal izango dute aldaketak egitea, 2014ko otsailaren 14ra arte —egun hori barne hartuta—, lehenengo eskatu duten zentrorantz bertara joanda.

b) Eskabidea zentroan bertan egitea

- Eskatzailea lehenengo eskatutako zentrorra joango da, idazkaritza-orduetan, otsailaren 14ra arte —egun hori barne hartuta—, eta aurkeztu nahi duen dokumentazioa eramango du.

- Eskabideko datuak aplikazioan kargatu eta dokumentazioa egiaztatu eta gero, eskatzaileari datu-orri bat erakutsiko dio ikastetxeak; bertan jasoko dira: datu pertsonalak, egindako eskaerak, barematzeko alegatutako egoerak eta aurkeztutako agirien zerrenda.

- Eskatzaileak datuok aztertu, eta zuzentzat jotzen baditu, datu-orria sinatuko du. Ikastetxeak zigilua jarriko du datu-orri sinatuan eta aurretiaz sartu dituen datuak baliozkotzat joko ditu. Datu orri hori eskaeren frogagiritzat eta egiaztagiriritzat erabiliko da, sinatuta eta zigilua jarrita duenean.

- Eskatzaileek 2014ko otsailaren 14ra arte izango dute, egun hori barne, grabatuetako daturen bat aldatzeko edo zuzentzeko eskatzeko. Eskabidea zein ikastetxetan entregatu, ikastetxe horrek egin beharko ditu aldaketak. Data horretatik aurrera ez da zuzenketarik onartuko

- Ezer aldatzeko, eskatzaileak nahitaez aurkeztu beharko du laugarren atalean aipatutako jatorrizko eskabide orri sinatu eta zigilatua. Egin beharreko zuzenketak egin eta gero, beste datu-orri bat emango zaio, sinatuta eta zigilatuta; gero, zaharra apurtu, eta azkenean ikastetxeak datu berriak baliozkotu egingo ditu.

c) Arau komunak

- Epetik kanpo ez da eskabiderik onartuko. Epe barruan egindako matrikula-eskabide guztiak onartu eta izapidetu beharko dituzte ikastetxeek, eskola-posturik egon edo egon ez eskatutako maila eta hizkuntza-eredu guztietarako, eta gero barematu egin beharko dituzte.

- Gehienez ere 3 ikastetxe aukeratu ahal izango dira eta, hiruretan, lehentasun-ordenaren arabera aukeratuko dira hizkuntza-ereduak, kontuan hartu gabe eredu horiek ikastetxean ematen diren ala ez.

- Eskabideko datuak balidatzeko unean, aplikazio informatikoak hurrenkera-zenbaki bat esleituko dio eskabideari, erabateko ausazkotasunez esleitu ere: 1 eta 999999ren arteko zenbaki oso bat, alegia. Zenbaki hori erabiliko da egon litezkeen berdinketak hausteko; betiere, berdinketa hausteko gainerako irizpide guztiak aplikatuta ere berdinketak bere horretan badirau. Kasu horretan, aplikazio informatikoak eskabide guztiak txikienetik nagusienara ordenatu, eta txikienari emango dio lehentasuna.

- Eskabideko datuak aldatuta ere, inoiz ez da aldatuko hurrenkera-zenbaki hori, hots, eskabidea lehenengo aldiz egin zenean ausaz esleitu zitzaiona.

6.4.- Datuak aldatzea eta uko egitea.

Otsailaren 14a izango da eskabidean jasotako datuak aldatu edo zuzentzeko azken eguna. Horretarako, ikastetxeak sinatu eta zigilua eman zuen datu-orria aurkeztu beharko da.

Martxoaren 21era arte eskabideari uko egin ahal izango zaio. Horretarako, eskatzaileak uko egiteko idazkia aurkeztu beharko du eskabidea aurkeztu zuen ikastetxe berean. Uko eginez gero, eskabidean jasotako aukera guztiei uko egingo zaie. Azkenik, ikastetxeak idazki hori artxibatuko du, bere egunean aurkeztutako eskabidearekin batera.

6.5.- Eskatzaileen zerrenda:

Eskaerak aurkezteko epea bukatu eta matrikula-datuak ontzat eman ostean, otsailaren 25ean, ikastetxeko iragarki -taulan argitaratuko da kurtso guztietako eskatzaileen zerrenda, ikasle guztien izen-abizenekin eta eskatutako hizkuntza-ereduekin.

6.6.- Barematzea:

Eskatutako plazak eskainitakoak beste edo gutxiago badira ez da eskaerarik barematuko eta eskatzaile guztiak onartuko dira.

Eskaerak barematu behar dituzten ikastetxeetan, aplikazio informatikoak puntuazio-hurrenkeraren arabera ordenatuko ditu eskabideak, kontuan hartuta zerrendako ordena eta hizkuntzei jarritako lehentasuna.

Ratioaz gainerik inoiz ezin izango da ikaslerik hartu, nahiz eta neba-arrebak, bikiak, hirukiak eta abar izan.

Eskaerak barematzeko, OOGk edo Eskola Kontseiluak irizpide hauek erabiliko ditu:

a) Helbidearen hurbiltasuna (gehienez ere, 5 puntu)

Kode Zibilaren arabera (154. artikulua, 40. artikuluari begira), gurasoek guraso-agintea galtzen duten kasuetan izan ezik (behar bezala egiaztatua), ondorengoetako bat izan beharko du, legez, emantzipatu gabe dauden adin txikikoen seme-alaben helbidea:

1. Guraso-agintea duten gurasoetako edozeinena.
2. Epaileak zaintza eman dion aitarena edo amarena, bereizketa, dibortzio edo ezkontza-baliogabetasunaren kasuetan.
3. Legez guraso-agintea duen tutorearena.

Odol-kidetasuna gorabehera, eskolatzeko ez da aintzakotzat hartuko beste senide batzuen helbidea.

Hona helbidearen puntuazioa: 5 puntu, bizilekua ikastetxearen eragin-eremuan badago; 2 puntu, mugakidea bada, eta puntu 1, eskatzailearen familiaren helbidea ikastetxea dagoen udalerrian kokatuta baldin badago. Puntu horiek ez dira metatuko.

Erroldatze-ziurtagiria aurkeztu beharrean helbidea eragin-eremuan duen aitaren/amaren/legezko tutorearen enpresaren ziurtagiria aurkezten bada, enpresaren helbideari dagokion puntuazioa (2 puntu) emango da. Helbide hori familia-helbidearen alternatiboa da eta, ondorioz, ezin da puntuazioa metatu.

b) Errenta eta adin txikiko anaia-arrebak (3 puntu gehienez).

Familia-unitatearen diru-sarrereren mailagatik ematen den puntuazioa eskuratu ahal izateko, Foru Ogasunari zerga-datuak eskatzeko baimena izenpetu beharko zaio Sailari. Ikastetxekoa ez den lurralde historiko batean bizi diren pertsonak aurkeztu beharko dute errenta-aitorpenaren fotokopia, ez beste inork.

Errentaren atalean puntuatzeko eskubidea izateko, diru-sarrera konputagarriak izango dira familia-unitateko kide guztiek 2012ko zerga-ekitaldian izandako zerga-oinarri orokorrari dagozkionak.

Eskatzaileen errenta-aitorpena egiaztatu arte, kontuan hartuko dira egiaztatze baimena eman duten lagunen puntuazioak. Dena den, datuak egiaztatu eta gero, aldatu ahal izango dira, onartu eta baztertutako en zerrrendak prestatzeko.

Datuak egiaztatu eta horien emaitzak jaso eta gero, eta errenta baloratzeko, Ogasunak egiaztatutakoak emango dira ontzat.

Egiaztapenen emaitzak behin-behineko zerrrendak argitaratu eta gero jasotzen badira, ikastetxeak egoera hori hartu beharko du kontuan, behin betiko zerrrendak egiteko. Egiaztapenen emaitzak onartutako en behin betiko zerrrendak argitaratu ondoren jasoko balira, ikastetxeak horren berri eman behako dio Ordezkaritzari.

Edonola ere, diru-sarrerak zein diren alde batera utzita, 0,25 puntu emango dira eskatzailearen adin txikiko anaiako/arrebako eta bakoitzaren familia-liburuaren fotokopia aurkeztu beharko da.

c) Ikastetxean edo atxikitako ikastetxeetan dauden senideak (9 puntu gehienez)

9 puntu emango dira ikastetxean edo atxikitako ikastetxeetan anaia/arreba bat izategatik. Atxikitako ikastetxeen kasuan, ikastetxearen ziurtagiria aurkeztu beharko da, familia-liburuaren kopiarekin batera. Horretarako, sare publikoan, Hezkuntzako lurralde-ordezkariek emandako ebazpenetan ezarritako atxikipenak aplikatuko dira, martxoaren 4ko 35/2008 Dekretuan 6 artikuluan xedatutakoa ezarritik, eta, halakorik ez badago, urtarrilaren 30eko 26/1996 Dekretuko V. eranskinean ezarritako hezkuntza-ibilbideak aplikatuko dira.

Aitak, amak edo tutoreak eskatutako ikastetxean lan egiten badu, 7 puntu emango dira.

d) Bestelako egoerak (6,5 puntu gehienez)

- 2 puntu emango dira ikaslearen elbarritasunarengatik eta puntu 1 haren aita, amaren, tutorearen, edo anaiaren/arrebaren elbarritasunarengatik, hura behar bezala egiaztatuz gero. Egoera hori ezin zaio familiako kide bati baino gehiagori zabaldu.
- Kategoria bereziko familia ugariko: 1,5 puntu; kategoria orokorreko familia ugariko: puntu 1.
- Ikastetxeko OOGk libreki zehaztutako beste egoera objektibo batzuegatik: 2 puntu. Gorabehera horiek argitaratu egin beharko dira 6.1. arauan aipatutako idazkiaren kopia ikastetxeko iragarki-taulan agertuz.

Eskaerarekin batera entregatu beharko da baremoaren atalak egiaztatze dokumentazio guztia eta eskaerak onartzeko epea itxi ondoren ezin izango da agiri gehiagorik onartu.

Baremoaren atalen bat egiaztatze dokumentazioa ez ekartzeak esan nahi du atal horren puntuazioari uko egiten zaiola.

7.- Onartutakoen eta kanpoan utzitakoen behin-behineko zerrendak.

Onartutako eta kanpoan utzitako ikasleen behin-behineko zerrendak martxoaren 10ean argitaratuko dira ikastetxean. Bikoiztutako eskabideak azkenak izapidetuko dira, hau da, epe barruan aurkeztutako gainerako eskabideei plazak esleitu eta gero.

Eskaerak ez badira barematu behar, onartutako behin-behineko zerrendak kurtsoka eta ereduka agertuko dira, eta ikasleen datu pertsonalak bakarrik jasoko dira: ikaslearen izen-abizenak, alfabetikoki ordenatuta.

Eskaerak barematu behar badira, ikasle bakoitzak guztira lortutako puntuazioaren arabera ordenatu beharko dira onartutako eta kanpoan utzitako ikasleen zerrendak, mailaka eta ereduka berezita. Zerrenda horietan agertu beharko dute, ikasleen datu pertsonalak (izen-abizenak), baremoaren atal guztietan lortutako puntuazioak eta guztira lortutakoak.

Ikastetxeko OOGri edo Eskola Kontseiluari martxoaren 21era arte aurkeztu beharko zaizkio onartutako eta kanpoan utzitako ikasleen behin-behineko zerrenden kontrako erreklamazioak. Erreklamazio horiek ikastetxeko OOGk edo Eskola Kontseiluak ebatzi beharko ditu, eta onartzen badira, programako datuak aldatu egin beharko dira.

8.- Behin betiko zerrendak.

Behin-behineko zerrendei aurkeztutako erreklamazioak ebatzi eta programako datuak aldatu ostean, martxoaren 27an argitaratu beharko dira ikastetxean onartutako eta kanpoan utzitako ikasleen behin betiko zerrendak.

9.- Bigarren eta hirugarren aukerak.

Lehen aukeratzat jarritakoa lortu ez duten ikasleei bigarren eta hirugarren aukerak esleituko dizkie aplikazio informatikoak. Aplikazio horren bitartez, lehenengo aukera moduan hautatutako ikastetxeak eta esleitutako ikastetxeak jasoko dituzte zerrenda horiek, eta ikastetxe bietan argitaratuko dira apirilaren 7an.

Bigarren eta hirugarren aukeren esleipena batera egingo da, lehenengo aukeran lortutako puntu kopuruari lehenengo ikastetxeak ezarritako irizpideei dagozkien puntuak kendu ondoren.

Berdinketa hausteko zenbakia aplikazio informatikoak emango du eskabide orriaren datuak egiaztatzerakoan

10.- Prozesua amaitzea.

Azkenean, libre geratu diren ikaspostuak eskaini ahal izango dizkie Lurralde Ordezkaritzak ikasleei, baldin eta eskatutako ikastetxeetan ikasposturik lortu ez badute.

Behin betiko zerrenden kontra, gorako errekurtsioa jarri ahal izango zaio lurralde-ordezkaritari maiatzaren 2ra arte.

Epearen barruan aurkeztutako eskaera guztiei plaza eman ondoren hartuko dira kontuan epez kanpo aurkeztutako eskaerak.



11.- Erljioa.

Indarrean den legeriak xedatutakoaren arabera, ikastetxeek derrigorrean eskaini beharko dute Erljioko irakasgaia eta aukerakoa izango da ikasleentzat.

Ikasleen gurasoek edo tutoreek ikastetxeko zuzendariari jakinaraziko diote ikasleak Erljioa ikastea nahi dutela eta zein erlijio nahi duten, eta jakinarazi ere hezkuntza-etapa edo maila bakoitzaren hasieran edo ikasleak ikastetxean lehen aldiz izena ematen duenean jakinaraziko diote.

Arau hauek jasotzen ez duten edozein alderditarako, 1. puntuan ezarritako araudiaren arabera jokatu da.

Begirunez,

Vitoria-Gasteiz, 2014ko urtarrilaren 9a.

Jesús Fernández Ibáñez
IKASTETXEEN ZUZENDARIA